

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

URIZAHARREKO UDALA

Dirulaguntzak emateko deialdia, 2018ko eta 2019ko ekitaldietan eraikinen ikuskapen teknikoaren ziurtagiria (EIT) lortzeko txostenaren kostua ordaintzeko

Deialdi honen xedea da, norgehiagoka araubidean, dirulaguntzak ematea partikularrei laguntzeko, 2018ko eta 2019ko ekitaldietan garatutako eraikinen ikuskapen teknikoaren (EIT) ziurtagiria lortzeko txostena egitearen kostua dela-eta.

Oinarri hauek arautuko dute deialdi hau, baita azaroaren 17ko 38/2003 Dirulaguntzei buruzko Lege Orokorrak, uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuak (Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorren Erregelamendua onartzen duena) eta aplikatu beharreko gainerako araudi osagarriak ere.

Deialdi honetako oinarriek arautzen dituzten dirulaguntzen kudeaketa printzipio hauen arabera egingo da: publizitatea, gardentasuna, norgehiagoka, objektibotasuna, berdintasuna eta bereizkeriarik eza; bai eta beste hauen arabera ere: eraginkortasuna zehaztutako helburuak betetzean eta efizientzia baliabide publikoen esleipenean eta erabileran.

1. Xedea

Oinarri hauen xedea da eraikinen ikuskapen teknikoari buruzko txostenaren kostua ordaintzeko Urizaharreko Udalak ematen dituen dirulaguntzen prozedura arautzea eta sustatzea.

2. Eremu geografikoa

Oinarri hauen aplikazio eremua Urizaharreko udalerria izango da.

3. Onuradunak

Dirulaguntzaren onuradunak izango dira familia bakarreko etxeen jabe diren pertsona fisikoak, dagokion eskaera egiten badute eta betekizun hauek betetzen badituzte:

- Ikuskapen teknikoa egin izana.
- Hirigintza arautegiaren arabera, eraikina ikuskapen teknikoa egitea beharrezkoa den eremu geografikoa batean egotea.
- Ikuskapenaren txostena udaletxean aurkeztea.
- Eraikina ez egotea egoera hauetako batean: hirigintzako arau-haustean, planeamendua-rekin desadostasunean edo antolamendutik kanpo.

Ezingo dira onuradun izan Dirulaguntzen azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 13. artikuluko 2 eta 3 apartatuetan jasotako debekuren bat dutenek.

Pertsona juridikoak ere ezingo dira onuradun izan, jabeen erkidegoak izan ezik.

Onuradunek oinarri hauetan zehaztutako betebeharez gain, Dirulaguntzen azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrak zehaztutakoak bete beharko dituzte.

Onuradunek egunean eduki beharko dituzte Urizaharreko Udalarekiko betebeharrak, eta, dirulaguntza behin betiko eman aurreko unean, ezingo dira agertu udal ogasunean zergadun moduan zerga likidatuak, mugaeguneratutakoak eta eskatzekoak diren zorreatatik. Halaber, egunean egon beharko dira zerga agentziarekiko, foru ogasunarekiko eta, hala dagokienean, gizarte segurantzarekiko beren eginbeharrak betetzen.

4. Diruz lagundu daitezkeen ekintzak

Dirulaguntzaren xede diren jarduera hauek jasoko dute dirulaguntza: familia bakarreko etxeen jabe diren pertsona fisikoen eraikinaren ikuskapen teknikoaren txosten-galdetegia egitea eta irizpena egitea.

Diruz lagundu daitezkeen ekintzak 2018ko urtarrilaren 1etik aurrekontuan aurreikusitako diru kopurua agortzen den arte eginak izan behar dira.

5. Dirulaguntzaren zenbatekoa

Dirulaguntza 150 eurokoa izango da etxebizitzako. Diruz lagundutako ekintzaren BEZa inoiz ere ez da lagunduko.

Jarduera beragatik beste dirulaguntzarik jasoz gero, Urizaharreko Udalaren laguntza beste dirulaguntza batzuek estaltzen ez dituzten eta benetan egindako gastuen zenbatekoaren arabera izango da, eta gehienez 150 eurokoa. Zenbateko horretatik gora jasotako laguntzaren zatia itzuli beharko da.

6. Finantzaketa

Dirulaguntza honek aurrekontuan horretarako aurreikusitako zenbatekoa izango du muga.

Eskatutako laguntza guztiei dagokien zenbatekoak gaingaituko balu dagokion aurrekontu ekitaldiko udal aurrekontu orokorrean eraikinen ikuskatze teknikoa egiteko dirulaguntzetarako aurreikusitako zenbatekoa, eskaerak erregistroetara heltzen diren hurrenkerari hertsiki jarraituz emango lirakeke. Horretarako, dokumentazioa zuzentzeko eskatu zaien interesdunek aurkeztu dituzten eskabideak, sarrera data bezala eskatutako dokumentazio osoaren aurkezpena egin den eguna hartuta sartuko dira emandako eskaeren zerrendan.

7. Dirulaguntzak eskatzeko eta emateko prozedura

Familia bakarreko etxeen jabe izanik laguntza hauek jaso nahi badituzte, udal idazkaritzan, jendaurreko ordutegian, honako hauek aurkeztu beharko dituzte:

– Normalizatutako dirulaguntza eskaera, behar bezala beteta, eredu moduan erantsitako agiriaren arabera.

- Nortasuna egiaztatzeko agiria (NAN).
- Eraikinaren ikuskapen ziurtagiria (EIT).
- Diruz laguntzeko jarduerari dagokion faktura.
- Ordainagiria.

8. Eskaerak aurkezteko epea

Eskaerak aurkezteko epea bi hilabetekoa izango da, deialdia ALHAOn argitaratzen denetik aurrera. Epe horretatik kanpo ez da eskabiderik izapidetuko.

Dokumentazioa Urizaharreko Udalaren sarrera erregistroan aurkeztu behar da, edo Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak 16. artikuluan adierazten dituen bideetako edozeinez baliatuz.

Eskabideak oinarri hauetan jasotako baldintza guztiak betetzen ez baditu, pertsona interesdunari eskatuko zaio zuzen dezala hamar egun baliaduneko epean, bat etorri Administrazio Publikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak 68. artikuluan xedatutakoarekin.

9. Dirulaguntzen xede kontrola

Urizaharreko Udalak datuen fidagarritasuna eta dirulaguntzaren erabilera egokia egiaztatzeko egoki jotzen dituen jarduerak egiteko eskubidea izango du.

Dirulaguntza jaso duten pertsona fisikoek dirulaguntza eman duen organoak egiten dituen ikuskatze lanak onartu beharko ditu, baita kontrol organo eskudunek egin ditzaketen egiaztapen eta finantza kontrolak ere, aurreko zeregin horietan eskatuko zaien informazio oro emanez.

10. Araudi aplikagarria

Oinarri hauetan jaso ez denerako, hauek aplikatuko dira: Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legea, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorra, uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretua, eta aplikatzekoak diren gainerako arauak.

Deialdi honen aurka administrazioarekiko auzi errekurtsua aurkeztu ahal izango da zuzenean Gasteizko epaitegietan, bi hilabeteko epean, ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera; bestela, aukeran, berraztertze errekurtsua erabakia hartu duen organoari berari, hilabeteko epean, ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Urizaharra, 2019ko abenduaren 30a

Alkate-lehendakaria

JUAN JOSÉ BETOLAZA PINEDO

I ERANSKINA

**ERAIKINEN IKUSKAPEN TEKNI-
KOA (EIT) EGITEKO
DIRULAGUNTZA ESKAERA****SOLICITUD DE SUBVENCION
POR LA REALIZACIÓN DE LA
INSPECCION TÉCNICA DE
EDIFICIOS (I.T.E.)****ESKATZAILEAREN DATUAK / DATOS DE LA PERSONA O ENTIDAD SOLICITANTE**

IZEN-ABIZENAK EDO SOZIETATEAREN IZENA / NOMBRE Y APELLIDOS O RAZÓN SOCIAL	NAN edo IFZ / DNI o NIF
JAKINARAZPENETARAKO HELBIDEA / DOMICILIO PARA NOTIFICACIONES	Ordezkararen NAN zkia. / DNI del representante
Posta elektronikoa / E-mail	Telefonoa /Teléfono

AZALTZEN DU / EXPONE

- Urizaharreko Udalak onartutako Eraikinen Ikuskapen Teknikoa (EIT) egiteko dirulaguntzen deialdiaren berri duela.

Que está enterado/a de la convocatoria de subvenciones para la realización de la Inspección Técnica de Edificios (I.T.E.) aprobada por el Ayuntamiento de Peñacerrada-Urizaharra.

- Udalarekiko zerga-betebeharrak egunean dituela eta harekin ez duela izango bestelako zorrik diru-laguntza honen deialdiaren behin betiko ebazpena eman arte.

Que está al corriente de sus obligaciones tributarias con el Ayuntamiento y no tiene otro tipo de deuda con el mismo hasta la resolución definitiva de la convocatoria de esta subvención.

Eta adierazten du bai / ez duela helburu bererako beste diru-laguntza edo laguntzarik eskatu _____ erakundeari.

Y declara que no / si , ha solicitado otras subvenciones o ayudas para el mismo fin a _____

Eta haiek bai / ez dituela jaso, _____ euroko kopuruarekin.

Y que no / si ha obtenido las mismas por el importe de _____ Euros.

AURKEZTUTAKO DOKUMENTAZIOA / DOCUMENTACIÓN APORTADA

<input type="checkbox"/> Ikuskapen Teknikoaren txostena / Informe de la Inspección Técnica
<input type="checkbox"/> Ikuskapen teknikoaren faktura / Factura de la Inspección Técnica
<input type="checkbox"/> Ordainketaren egiaztagiria / Comprobante de Pago.

ESKATZEN DU / SOLICITA

Eraikinen Ikuskapen Teknikoaren gastuak ordaintzen laguntzeko udal diru-laguntza ematea (EIT)

Que se le conceda la Subvención Municipal para ayudar a pagar los gastos de la Inspección Técnica de Edificios (I.T.E.)

DIRULAGUNTZA KOBRATZEKO BANKU-DATUAK / DATOS BANCARIOS PARA COBRAR LA SUBVENCION

Banketxea / Entidad Bancaria	
Kontuaren titularra / Titular de la Cuenta	
Kontuaren zkia. / Nº de Cuenta	
Guztira / Total a ingresar	

Urizaharra, 20.....koarena
Peñacerrada, ade de 20.....

Interesatuaren sinadura / Firma de la persona interesada.

Sus datos personales serán incluidos en un fichero del sistema de información del Ayuntamiento de Peñacerrada, cuya finalidad es la realización de tareas propias de la gestión municipal. Ud puede ejercer los derechos que reconoce la Ley/Orgánica 15/1999 a través del Servicio de Atención Ciudadana .

Zure datu pertsonalak Urizaharreko Udaleraren informazio-sistemako fitxategi batean sartuko dira, eta fitxategi horren helburua udal-kudeaketari dagozkion lanak egitea da. 15/1999 Lege Organikoa aitortzen dituen eskubideak erabili ditzakezu Herritarren Arretarako Zerbitzuzaren bidez.